



PLENTZIAKO URI UDALA	
Ayuntamiento de la Villa de Plentzia	
SARRERA Entrada	
EGUNA Fecha	06 FEB. 2019
IRTEERA Salida	139

Herritar estimatua,

2018ko abenduaren 1ean bidali genizuen gutunaren jarraipen gisa, hemen duzue idazki hartako gai batzuei buruzko informazio eguneratua:

### **-AUZORA SARTZEKO ERREPIDEEN SEGURTASUNA:**



\*BI-4155 foru errepideari dagokionez eta aurrerago jakinarazi zitzaizuen bezala, Foru Aldundiak margotu ditu ertzetako bide-markak, kasu honetan errepideari dagokion lerro etenarekin.

Foru Aldundiak errepide hori urbanizatu eta urbanizatu ondoren Udalari lagatzeko aukerari dagokionez, kontratatu dugu SARATXAGA AUZORA SARTZEKO BI-4155 FORU ERREPIDEA URBANIZATZEKO MEMORIA BALORATUAren erredakzioa. Txosten horretan zehaztuko dira zeintzuk diren egin beharreko lanak eta lan horien kostua; gero, Foru Aldundiari bidaliko zaio azter dezan eta, hala badagokio, onar dezan. Udalaren asmoa da Memoria horretan gutxieneko zerbitzuak biltzea, hala nola, espaloi

bat eraikitzea, argiztapena hobetzea eta urak behar bezala biltzea.

Uste dugu oso proiektu garrantzitsua dela auzoarentzat eta Gobernu Talde honek apustu irmoa egin du horren alde. Halere, ez dugu itxaropen faltsurik sortu nahi, onartu behar dugu proiektuaren hastapenetan gaudela eta badakigu bidea luzea izango dela. Gainera, ezin baitzitekeen bestela izan, erabateko errespetua erakutsi nahi diogu Bizkaiko Foru Aldundiari, bi erakundeen arteko elkarlana izan dadin gure helburuak lortzeko bidea.

\*Errepide honetara sartzeko bidegurutzeari dagokionez, oraindik ez dugu jaso Gorlizko Udalaren erantzunik bilera bat egiteko eta Foru Aldundiak bidegurutze honen inguruan prestatu zituen neurriak aztertzeko. Era berean, asmoa da bilera horretan Gorlizko Udalari proposatzea jar dezala markesina bat auzoko sarreran.



### **-UR-JARIOAK 31. ZENBAKIAREN PAREAN**

Joan den abenduaren 21ean izan ginen gune horretan Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarentzat hornikuntza-sareen hobekuntza proiektuak egiten dituen enpresako teknikari batekin eta Udaletxeko beste teknikari batekin. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak azterketa bat egingo du ur-hornikuntzako sarea hobetzeko eta, oraingoan, sare hori igaro dadin lur publikoetatik eta ez pribatuetatik. Horrela, asko hobetuko da zerbitzua.

Behin azterlan hori jasotakoan, eta, beraz, ezagutzen ditugunean egin beharreko lanen xehetasunak nahiz kostu ekonomikoa, aztertzen hasiko gara Udalak nola egingo dien aurre lan horiei.

### **-GASA EKARTZEA AUZORA**

Gasa banatzen duen enpresarekin bildu gara eta esan digu laster jarriko dutela abian gasa auzora ekartzeko bideragarritasun-azterlana. Momentuz, lehen urrats bat da, aurrerapauso handi bat gure ustez.

### **-BIZKAIBUSen GERALEKUA SAGASTIKOETXEN**

Azaroaren 29an kontsulta bat egin zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko foru diputatuari, eskatzeko konpon dezala Sagastikoetxeko autobus geltokia (Bizkaibus-en A3499 linea), edo, hala badagokio, jar dezala geraleku bat. Abenduaren 3an jaso genuen Garraio eta Mugikortasun zuzendariaren erantzuna, esanaz bere departamenduko zerbitzu teknikoek bisita bat egin dutela auzora proposamena in situ aztertzeko. Hauxe da ondorioa: "geltokien ezarpena arautzen duen egungo araudiaren arabera, ezin da autobus geltoki bat jarri errepideak duen ibilbideagatik. Bi norabideetako batean ere ez dago geralekurik autobusa gelditu dadin segurtasunari eta trafikoari oztoporik egin gabe". Beraz, oraingoan ere ez dute onartu gure eskaera.

Adeitasunez,

Plentzian, 2019ko otsailaren 6an

Alkatea

David Crestelo Dominguez